

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

2561

AGINDUA, 2024ko apirilaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, EAeko gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea xede duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteentzako 2024ko laguntzak arautu eta haietarako deialdia egiten duena.

Gaixoen irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteak patologia bera nozitzen duten pertsona fisikoen elkarteak dira. Elkartzeko, komunikatzeko eta laguntza emateko guneak dira, bai gaixotasunak erasandako pertsonentzat, bai haien familientzat.

Osasun Sailak bereziki estimatzen du nolako ekarpena egiten duten elkarte horiek gaixoen eta haien senideen osasun fisikoaren, psikologikoaren eta sozialaren alde, hainbat alorretan: hor dira, adibidez, gaixotasunen errealitate sozial eta afektiboarekiko zuzeneko kontaktua, eta zerbitzuen eta autolaguntza-programen bidezko zuzeneko asistentzia eta laguntza enpatikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legean, laguntza horietarako aurrekontu-kreditua jasotzen da.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikulua adierazten duenez, plan estrategiko baten bidez planifikatu beharko dira, aldez aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren dirulaguntzak. Plan horretan zehaztu behar da, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betez, zer helburu eta ondorio lortu nahi diren, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dituzten, eta planaren helburuarekin erlazionatutako zein ekintza eta adierazle erabiliko diren dirulaguntzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Planak 4 urteko indarraldia izango du, salbu eta, bertan jasotako ekintzen ezaugarriengatik, epe luzeagoa behar bada.

Osasun Sailaren 2024-2028ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak eta 2024ko Dirulaguntzen Urteko Planak, zeinak Osasuneko sailburuaren 2024ko otsailaren 7ko Aginduaren bidez onartu baitziren, eranskinaren 3.1.3 epigrafean jasotzen dituzte «Gaixotasunen bat dutenen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzen diharduten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteentzako laguntzak», «Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea» arloaren barruan.

Agindu honetako laguntzek ez dituzte betetzen EBren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. apartatuan jasotako betekizun guztiak, eta, beraz, ez dira estatu-laguntzak. Ondorioz, ez da beharrezkoa inongo izapidetik egitea Europako Batzordearen aurrean.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Onartzea, I. eranskinen jasota dagoen moduan, EAeko gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzen diharduten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteentzako laguntzen 2024ko deialdia arautzen duten oinarriak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Araudia eta izapidetzea.

Agindu honen bidez iragarritako deialdia eta hura garatzeko jarduketak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean oinarritzko araudi gisa araututakoaren mende egongo dira.

2024ko maiatzaren 28a, asteartea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera izapidetuko da prozedura.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beraren aurka, elkarte interesdunek aurrerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira bi epeak.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 30a.

Osasuneko sailburua,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.

I. ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK

1. oinarria.– Deialdiaren eremua eta xedea.

1.– Agindu honen xedea da «Gaixoen eta haien familien kolektiboen bizi-kalitatea hobetzen diharduten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteentzako laguntzak» iragartzea 2024. urterako. Laguntza horiek Osasun Sailaren 2024-2028ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskineko 3.1.3 epigrafean daude jasota (Osasuneko sailburuaren 2024ko otsailaren 7ko Aginduaren bidez onartu zen plana).

Helburua da laguntza ematea osasun-sistemako ekintza sendatzaile, errehabilitatzaile eta aringarrietarako, askotariko patologiak dituztenentzat (minbizia, diabetesa, gaixotasun kardio-baskularrak, nutrizio-arazoak, arazo neurodegeneratiboak eta neuromuskularrak, gaixotasun psikikoak eta abar). Era berean, erabiltzaileen eta haien senideen parte-hartzea eta ahalduntzea indartu nahi da, eta osasun-sistemarekin duten harremanean erantzukidetasuna sustatu.

2.– Laguntza hauen helburua da kolektibo horiei babesa ematea, haien proiektuak finantzatuta. Proiektuok jarduera bat edo gehiago izango dituzte, eta 2024ko urtarriletik abendura gauzatuko dira, xede hauek betetzeko:

- a) Trebetasunen eta baliabideen garapena babestea, gaixoen autozaintza-gaitasuna maximatzeko eta autonomia handitzeko.
- b) Gaixoen behar soziosanitarioak babestea eta bideratzea, osasunaren sustapenaren ikuspegitik.
- c) Gaixotasunari buruz, haren arrisku-faktoreei buruz eta bizi-ohitura egokienei buruz duten ezagutza eta informazioa handitzea.
- d) Gaixoei osasun aldetik dituzten desberdintasunak gutxitzea.
- e) Generoaren ikuspegia barnean hartzea.

3.– Jarduera hauek jaso ahal izango dute dirulaguntza:

- Gaixotasunari buruzko aholkua eta informazioa.
- Errehabilitazio logopedikoa, fisioterapeutikoa eta kognitiboa, eta kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzen duten beste prozedura batzuk.
- Laguntza psikologikoa.
- Terapia okupazionala.
- Autolaguntza-taldeak.
- Gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko tailerrak.
- Gaixoen familientzako laguntza.
- Gaixotasunari buruzko informazio- edo sentsibilizazio-jardunaldiak, gaixotasunari buruzko informazio-standak eta abar.
- Gaixotasunarekin lotutako publizitate-kanpainak.

– Gaixotasunaz informatzeko eta sentsibilizatzeko beste jarduera batzuk.

4.– Deialdi honen bidez finantzatzeko moduko ekintzetatik kanpo gelditzen dira:

a) Osakidetzak edo Osasun Sailarekin hitzarmena duten zentroek egiten dituzten jardueren pareko jarduerak.

b) Hiesaren eta adikzioen arloko jarduerak, baita ikerketa-lanak eta Osasun Sailean horretarako berariazko laguntza-deialdiak dituzten guztiak ere.

c) Osasun Saitetik jasotako bestelako laguntzen bidez, izendunak izan zein ez, finantzaturako proiektuak.

d) Sexu-diskriminazioa eragiten duten jarduerak.

2. oinarria.– Entitate onuradunak.

1.– Eskakizun hauek betetzen dituzten elkarteek eskuratu ahal izango dituzte laguntzak:

a) Irabazi-asmorik gabekoak izatea, eta osasun-premiak dituzten pertsonen parte-hartzen laguntzea eta haien eskubideak defendatzea, haien bizitzan eragina duten esparru, politika eta jarduera guztietan, helburu izanik haiek erabat gizarteratzea eta haiei bizi-kalitatea hobetzea, elkartzeko, komunikatzeko eta laguntzeko guneak sortuz haientzat guztientzat.

b) Estatutuen helburuen artean berariaz jasotzea bazkideen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egingo dituztela, haiek guztiak osasun-arazoan, gaixotasunen edo egoera medikoaren arabera sailkatuta.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko gaixoen eta haien familien kolektiboez osatuta egotea.

b) Legez eratuta egotea, eta behar bezala izena emanda egotea elkartearen egoitza sozialari dagokion lurraldeko erregistro administratibo ofizialean, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta urtebete lehenagotik gutxienez.

e) Beteta izatea, bai Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak, bai dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, bat etorrita Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin –Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa berau–.

f) Ez egotea 20/2023 Legearen 13.1 eta 13.4 artikuluetan adierazitako inolako egoeratan.

2.– Sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak ezin izango dira dirulaguntzak jasotzeko aurkeztu, dagokien zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Era berean, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, bai, halaber, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak ere.

3.– Entitateek prozesu osoan bete beharko dituzte eskakizun horiek guztiak, harik eta emandako dirulaguntza likidatu arte.

3. oinarria.– Aurrekontu-zuzkidura eta deialdiaren organo kudeatzailea.

1.– Deialdiaren zenbatekoa 300.000 eurokoa da (hirurehun mila euro).

2.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza da deialdiaren organo kudeatzailea.

4. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Jarduera batez edo batzuez osatutako proiektuak diruz laguntzeko dira laguntza hauek, eta ez dira erabiliko langile-egiturak modu egonkorrean mantentzeko, ezta elkarteen azpiegitura fisikoetan inbertitzeko ere.

2.– Gastu hauek lagunduko dira diruz:

a) Langileak (nominak eta gizarte-segurantzako gastuak).

b) Profesional independenteen zerbitzuak.

c) Ekipamenduak eta materialak.

d) Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak.

e) Eskatutako zenbateko osoaren % 15, gehienez, zeharkako kostuengatik, halakotzat hartuta:

1.– Elkartearen egiturazko gastuak, azpiegitura fisikoei dagozkienak barne.

2.– Dieten eta joan-etorrien gastuak.

3.– Jarduera jakin batekin zuzenean lotuta ez dauden baina diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezkoak diren kudeaketa-gastuak.

3.– Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Gastu finantzarioak.

b) Inbertsio-gastuak.

c) Administrazio-lizentziak.

d) Berandutze-errekarguak eta zehapen administratibo eta penalak, besteak beste, zergen, tributuen, tasen, Gizarte Segurantzako kuoten, prozedura judizialen edo gatazkak borondatez ebazteko beste prozedura batzuen ordainketan berandutzeak edo ez-ordaintzeak eragindakoak.

e) Oro har, elkarteak egindako edo antolatzaileek parte-hartzaileei eskainitako aperitibo, hamaiketako, catering, bazkari edo afariekin lotutako gastuak. Jarduera dela-eta eskainitako opariak ere ez dira finantzatuko.

4.– Egindako gastutzat hartuko da justifikatzeko epea amaitu aurretik egiazki ordaindu dena.

5.– Diruz laguntzen diren jarduerak ezingo dira azpikontratatu.

6.– Oinarri honetan zehaztu ez diren gaietan, oro har, 20/2023 Legearen 30. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

5. oinarria.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, beste administrazio edo ente publiko

edo pribatu batzuetatik edo estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoetatik etorrira ere.

2.– Lortutako laguntza guztien zenbatekoen batura jardueraren aurrekontu osoa baino handiagoa baldin bada, sobera dagoen zenbatekoa kenduko zaio dirulaguntzari.

3.– Laguntza hauek bateraezinak dira Osasun Sailak osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko edo gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak egiteko emandako dirulaguntza izendunekin.

6. oinarria.– Dirulaguntzen zenbatekoaren mugak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa hau izango da gehienez:

a) Eskatutako zenbatekoa.

b) Diruz lagundu daitekeen gastuaren aurrekontu osoaren % 100.

c) 5.000 euro dirulaguntza bakoitzeko.

7. oinarria.– Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabideak bide telematikoz aurkeztuko dira, 20.4 oinarrian adierazitakoaren arabera.

2.– Elkarte bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

3.– II. eranskinean zehazten dira eskabideetan adierazi beharreko datuak. Datuak egoitza elektronikoaren inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira, agindu honen 20.4 oinarrian xedatutako moduan sarbidea eginda.

4.– Eskabidearekin batera, behar denean, agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Eskabidean administrazio publiko eskudunen aurrean egiaztapena zuzenean lortzeari uko egiten zaionean bakarrik:

– Dagokion administrazio-erregistroan eratu eta inskribatu izanaren egiaztagiraren kopia.

– Zerga-betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria.

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria.

b) Elkarteak proiektua hobeto azaltzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein dokumentazio.

8. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskabideak bitarteko elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erki-degoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa erabilita (20. oinarrian adierazia).

3.– Eskabidea aurkezten duen pertsonak ziurtagiri elektronikoa baten bidez identifikatu behar du bere burua:

a) Entitatearen ziurtagiri elektronikoa erabiltzen badu, ez du beste egiaztagiririk behar.

b) Pertsona fisikoen ziurtagiri elektronikoa erabiltzen badu, agindu honetako 20.2 oinarrian aipatutako ahalordetzeen erregistro elektronikoan inskribatuta dagoela egiaztatu beharko du.

4.– Entitate eskatzaileak eskabidea eta gainerako dokumentazioa aurkezteko hizkuntza ofiziala aukeratu behar du. Hizkuntza horri eutsiko zaio prozedura osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikulua xedatzen duen bezala.

9. oinarria.– Eskabidearen akatsak zuzentzea.

Eskabidean datuak falta badira edo nahitaezkoa den agiriren bat falta bada, administrazioak 10 egun balioduneko epea emango dio entitate eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. Halaber, adieraziko dio ezen, hala egiten ez badu, ulertuko duela eskaeran atzera egin duela. Administrazioak eskabide horiei buruzko ebazpen espresua eman eta jakinarazi beharko du, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan, zeinak lotura baitauka 21. artikuluekin.

10. oinarria.– Datuak eta eskakizunak egiaztatzea.

Entitateak, eskabidearen bitartez, aurka egin ahal izango dio organo kudeatzaileak dagokion administrazio publikoan entitatearen nortasun-datuak kontsultatu edo biltzeari, eta, halaber, eskakizunak betetzen diren egiaztatzeari. Horrelakoetan, entitateak ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu nahitaez. Eskabideak gutxienez honako hauei buruzko erantzukizunpeko adierazpenak jasoko ditu:

1.– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean edukitzea.

2.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

3.– 20/2023 Legearen 13.1 eta 13.4 artikuluek adierazitako egoeretako batean ere ez egotea:

– Epai irmo baten bidez zigortuta egotea dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin.

– Borondatezko konkurtsoan deklaraturik egotea, kaudimenik gabekotzat edo konkurtsoan deklaraturik egotea (non eta konkurtso horretan ez duten hitzarmen bat adostu), esku-hartze judizialaren mende egotea, edo konkurtsoa sailkatzeko epai baten bidez desgaitua izatea.

– Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana, errudun deklaraturik izateagatik.

– Administrazioarekin edo elkarrekin legezko ordezkaritza dutenak abenduaren 26ko 52/1984 Legearen eta ekainaren 26ko 1/2014 Legearen aurreikusitako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean egotea, edo ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat izatea.

– Indarreko legediaren arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzeko zehapena jaso izana ebazpen irmo baten bidez.

– Desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota ez betetzea, eta hori betetzeko beste neurri batzuk hartu direla egiaztatu ez izana.

– Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-kausak izatea.

3.– Eskatuta edo emanda izatea, edo ez, helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk, edozein administrazio publikotatik edo ente publiko edo pribatutatik edo estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoetatik. Halakorik eskatu edo jaso bada, kopurua adierazi behar da.

4.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzea, sexu-jazarpenari eta berdintasun-planei dagokienez, agindu honen 2.2 oinarriaren arabera.

Organo kudeatzaileak egoki deritzen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu prozedura legezkoa dela bermatzeko. Nolanahi ere, laguntzak eman aurretik eta ordainketa bakoitza egin aurretik, behar den egiaztapena egingo da.

Erantzukizunpeko adierazpen bateko datu, adierazpen edo dokumenturen batean funtsezko zehaztasunik eza, faltsukeria edo omisioren bat hautematen bada, entitate eskatzaileak ezin izango du prozeduran jarraitu egitate horien berri jakiten den unetik aurrera. Gainera, bestelako erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatu ahal izango dira.

Halaber, egoera horien berri ematen duen Administrazio Publikoaren ebazpenak xeda dezake entitate interesdunak itzuli egin behar duela dirulaguntzaren zenbatekoa, hala badagokio, bai eta denbora-tarte jakin batean ezingo duela abian jarri ere helburu berbererako beste prozedura bat; hori guztia, aplikatu beharreko arauetan ezarritakoarekin bat eginez.

11. oinarria.– Eskabideak baloratzeko irizpideak.

1.– Jarraian zehazten diren balorazio-irizpideak erabiliko dira eskabideen lehentasun-ordena ezartzeko:

a) Proiektuaren justifikazioa, zer egoerari erantzun nahi zaion (deskribapena), zer faktoreen gainean eragin nahi den: 14 puntu gehienez.

b) Proiektuaren bidez zer helburu lortu nahi diren: 10 puntu gehienez.

1.– Helburu orokorra: 3 puntu gehienez.

2.– Helburu zehatzak: 7 puntu gehienez.

c) Proiektuak zer garapen izatea aurreikusten den: 28 puntu gehienez.

1.– Jardueren eremua: 7 puntu gehienez.

a) EAE: 7 puntu.

b) Lurralde historikoa: 5 puntu.

c) Eskualdea: 4 puntu.

d) Udalerria/auzoa: 3 puntu.

2.– Faseen deskribapena eta lanen eta zereginen egutegia: 11 puntu gehienez.

3.– Giza baliabideak eta bitarteko materialak: 10 puntu gehienez.

d) Proiektuaren ebaluazio aurreikusia: 8 puntu gehienez.

1.– Adina, sexua, bizilekua, jatorria edo etnia kontuan hartuta zehazten ditu jardueraren onuradunak: 3 puntu gehienez.

2.– Proiektuaren jarraipen- eta inpaktu-adierazleak zehazten ditu: 3 puntu gehienez.

3.– Onuradunen gogobetetzeari buruzko adierazleak zehazten ditu: 2 puntu gehienez.

e) Proiektuan berdintasun-ikuspegia kontuan hartzen den: 25 puntu gehienez.

1.– Gaixotasunaren prozesuan sor daitezkeen genero-desberdinkeriei aurre egiteko estrategiak: 6 puntu gehienez.

2.– Gizarte-egoera ahulean dauden pertsonak edo taldeek proiektuari onura ateratzeko aukerak handitzeko estrategiak, aldagai hauek aintzat hartuta: adina (haurrak eta pertsona nagusiak), migratzaileak, gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak edo bestelako gizarte-kalteberatasuna pairatzen dutenak, bai, halaber, zerbitzu-zuzkidura apaleko guneetan bizi diren pertsonak ere: 8 puntu gehienez.

3.– Gaixoen edo haien senideek proiektua diseinatzen, abian jartzen eta ebaluatzen parte har dezaten sustatzeko estrategiak: 6 puntu gehienez.

4.– Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko estrategiak, eta, bereziki, jarduerarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean euskararen erabilera bermatzekoak: 5 puntu gehienez.

f) Beste arlo batzuetako beste elkarte edo entitate batzuekin lankidetzan aritzea, elkarlaguntza eta boluntariora sustatzeko: 15 puntu gehienez.

1.– Gaixoen beste elkarte batzuekin koordinatzea: 8 puntu gehienez.

2.– Arlo komunitarioko beste entitate batzuekin koordinatzea: 7 puntu gehienez.

2.– Gehienez 100 puntu eskuratu ahal izango dira, eta, gutxienez, 50 puntu. 50 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuek ez dute dirulaguntzarik jasoko. Halaber, a), b) eta c) apartatuetan adierazitako puntuazioaren gutxienez erdia lortzen duten proiektuek bakarrik jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak.

12. oinarria.– Eskabideen balorazioa eta dirulaguntzak emateko prozedura.

Balorazio-batzordeak baloratuko ditu eskabideak, eta, kide anitzeko organo gisa, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango du.

1.– Eskabideak aztertuko dituen balorazio-batzordea honako hauek osatuko dute:

– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria (Itziar Larizgoitia Jauregui), batzordeburu gisa.

– Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariorde kargua dutenak (Joseba Bidaurrazaga Van-Dierdonck, Elena Albisua Cortazar, Juan Carlos Fernández Crespo).

2.– Kide anitzeko organoaren idazkaria batzordeburuak izendatuko du batzordekideen artean.

3.– Garaiz eta egoki aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta balioetsiko ditu eskabideak balorazio-batzordeak.

4.– Balorazio-batzordeak zehaztuko du, proiektu bakoitzerako, lortutako puntuazioa eta diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa.

5.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak –laguntzak kudeatzen dituen organoa den aldetik– edo balorazio-batzordeak behar beste informazio eta dokumentazio osagarri eskatu ahal izango diete elkarte eskatzaileei, aurkeztutako proiektua edo jarduera hobeto ulertzeko, betiere.

6.– Dirulaguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira. Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionaleko sistema bat aplikatuko da: balorazio-fasean lortzen den puntuazioaren arabera banatuko da 3. oinarrian zehaztutako zuzkidura ekonomiko osoa. Horretarako, lortutako puntu bakoitzari balio ekonomiko bat esleituko zaio, eta formula honen bidez kalkulatu da:

$$PB = AZ/PT.$$

PB = Puntu bakoitzari esleitutako balio ekonomikoa.

AZ = Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura.

PT = Dirulaguntza merezi duten proiektu guztiei emandako puntuazioaren batura.

Hasierako banaketa egiteko, balorazio-fasean lortutako puntuak puntu bakoitzari esleitutako balio ekonomikoarekin (PB) biderkatuko dira.

Hasierako banaketan esleitzen den zenbatekoak 6. oinarrian ezarritako mugaren bat gainditzen badu, muga hori aplikatuko da, eta soberakina balorazio-fasean lortutako puntuazioarekiko modu proportzionalean banatuko da muga horiek gainditzen ez dituzten proiektuen artean. Birbanaketa hori egingo da banaketa baten ondoren mugaren bat gainditzen den guztietan edo diruz lagundutako eskabide guztiak gehieneko zenbatekora iristen diren arte.

Banaketan, gainditu egiten bada elkarte batentzat ezarritako muga, zenbatekoa proportzionalki murriztuko da diruz lagundutako proiektu bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera.

7.– Proiektuen ebaluazio konparatua egin eta dagozkien zenbatekoak zehaztu ondoren, balorazio-batzordeak txosten bat egingo du balorazioaren emaitzarekin. Txosten horretan oinarrituta, organo kudeatzaileak ebazpen-proposamena egingo du, eta, bertan, honako hauek adieraziko ditu: entitate onuradunen zerrenda, finantzatuko den proiektu bakoitzerako proposatutako zenbatekoak eta balorazioaren puntuazioa, baita ukatzea proposatzen dituen proiektuen zerrenda eta ukatzeko arrazoiak ere.

13. oinarria.– Ebazpena, errekurtsoak, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Osasuneko sailburuordeak ebatziko du laguntzen deialdia, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak proposatuta, laguntzen organo kudeatzailea den heinean.

2.– Ebazpenean zehaztuko da eskatutako dirulaguntzak eman edo ukatu diren. Aldeko ebazpenetan, adieraziko da zein elkarteri eman zaien laguntza, zenbateko dirulaguntza eman zaien, eta balorazioan zenbat puntu lortu dituzten. Laguntzak ukatzeko ebazpenetan, ukatzeko arrazoiak adierazi beharko dira.

3.– Ebazpena emateko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Gehieneko epea igarota ebazpenik jakinarazi ez bada, entitate interesdunek ulertu beharko dute dirulaguntza-eskabidea ezetsi zaiela, 39/2015 Legearen 25.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta jakinaraziko zaie interesdunei.

5.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, entitate interesdun bakoitzak 11. oinarriko balorazio-irizpideen arabera lortutako puntuazioa kontsultatu ahal izango du 20. oinarrian adierazitako izapidetze elektronikoen bidez.

6.– Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osasuneko sailburuari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoa betez.

14. oinarria.– Dirulaguntza justifikatzea.

Dirulaguntzak justifikatzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluan ezarritakoa beteko da oso-osorik.

1.– Entitate onuradunek beren proiektuak egin izana justifikatu beharko dute.

2.– III. eranskinean, justifikazioek jaso beharko dituzten datuak zehazten dira.

3.– Justifikazioarekin batera, honako hau erantsiko da:

a) Eskatutako zenbatekotik eman den dirulaguntzaren zenbateko osoaren gastua justifikatzen duten fakturen, nominen edo bestelako ordainketa-egiaztagirien kopia sinplea. Egiaztagiri horiek entitatearen arduradunaren sinadura izan beharko dute, eta benetakoak direla ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena erantsiko zaie.

b) Proiektuan boluntarioek egiten duten lana justifikatzeko, boluntario bakoitzaren ziurtagiriaren kopia bat aurkeztu behar da. Entitatearen legezko ordezkariaren sinadura behar du kopiak, eta datu hauek jaso behar ditu: boluntarioaren datuak (izen-abizenak eta NANA); ordu kopurua; orduko kostua; guztizko zenbatekoa eta boluntarioaren sinadura.

Boluntarioak balioztatzeko, elkartearen inguruko pertsonak ordainsaririk jaso gabe egindako lanaren zenbatespen ekonomikoa egingo da. Zenbateko hori elkartearen ekarpen propioa justifikatzeko baino ez da hartuko aintzat, eta orduko 20 euroko gehieneko muga izango du.

c) Jarduerarekin zerikusia duten agiri publikoak, hala nola egunkari zatiak edo proiektuko funtsen kontura egin, kopiatu eta zabalduko ikasmateriala. Agiri horiek horretarako esteka elektronikoen bidez ere egiaztatzea daitezke.

d) Osasun Sailaren babesa jaso dela adierazi izana egiaztatzen duen dokumentazioa (agindu honetako 17.10 oinarriaren arabera).

e) Proiektuaren funtsekin antolatutako jardueretara joan izanaren laburpena: pertsona kopurua adierazi behar da, adinaren eta sexuaren arabera bereizita.

4.– Emandako laguntzarekin ordaindutako gastuek dirulaguntza jaso duen proiektua gauzatzean sortutakoak izan behar dute. Honako gastu hauek dirulaguntzaren kargura behar bezala justifikatutzat joko dira:

a) Entitate onuradunaren izenean igorritako fakturaren bidez justifikatutakoak. Faktura guztiak 2024an egindakoak izango dira.

b) Banku-zordunketako ordainagirien bidez justifikatutakoak (finantza-entitateek egiten dituzte, eta faktura bati dagozkion datuak izaten dituzte, zenbakia eta seriea izan ezik).

c) Lan-kontratudun langileei dagozkien gastuetan, soldaten ordainagiriaren bidez justifikatutakoak (ordainagiriak eredu ofizialen eta Gizarte Segurantzako kotizazioko aldizkari ofizialen arabera izan behar dute).

d) Balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita dauden noizbehinkako lanetan, enpresariak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek egiten dituztenean, gastua justifikatzeko, entitate onuradunak idatzi bat egingo du, eta entitatearen ordezkariak sinatuko du. Idatzi horrek, gutxienez, honako hauek jasotzea behar ditu: ordezkariaren, elkartearen eta hartzailearen izen-abizenak edo izen soziala, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea; eragiketaren deskribapena eta guztizko zenbatekoa; idatziaren jaulkipen-data; «hartu dut» eta pertsona hartzailearen sinadura, eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren atxikipena.

e) Boluntarioen kasuan, haien aseguruaren bidez justifikatutako gastuak bakarrik. Boluntarioen aseguruak bi kontingentzia estali beharko ditu: istripuak eta erantzukizun zibila. Erantzukizun zibilaren kasuan, gutxienez 300.506,05 euroko kapital aseguratu izan behar du istripu eta aseguru-urte bakoitzeko, polizari atxikitako boluntario bakoitzarentzat.

Boluntarioen asegurua diruz lagundu ahal izateko, entitate aseguratzailerak egindako egiaztagiri bat adierazi behar da justifikazioan. Egiaztagiri horretan, datu hauek agertuko dira, gutxienez: erakundeak bere boluntarioentzat kontratatutako aseguru-polizaren estaldurak, aseguruan sartzen den pertsona kopurua eta polizaren guztizko zenbatekoa.

5.– Dirulaguntza jasotzeko aurretik eginiko gastuak ordaindu ahal izango dira jasotako dirulaguntzarekin, baldin eta gastu horiek dirulaguntza jasotzen jardueretan sartzen diren ekintza eta kontzeptuen kostu errealak badira eta 2024. urtean sortutakoak badira.

6.– Gehienez ere, jasotako laguntzaren zenbateko osoaren % 15 egotzi ahal izango zaie zeharkako gastuei, agindu honetako 4.2.e) oinarrian zehazten den bezala.

7.– Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko da, agindu honetako 20. oinarrian azaltzen den moduan.

8.– Dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2025eko martxoaren 3a da.

15. oinarria.– Justifikazioaren akatsak zuzentzea.

Justifikazio-dokumentazioan akatsen bat edo ez-egiteren bat ikusten bada, jakinarazpena jasotzeko eta hurrengo egunetik 10 egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo dokumentazioa aurkezteko eskatutako zaio entitateari.

Eskatutakoa adierazitako epean zuzentzen ez bada, agindu honen 21. oinarrian aurreikusitako ondorioak aplikatuko dira.

16. oinarria.– Dirulaguntzen ordainketa.

1.– Dirulaguntzak honela ordainduko dira:

a) % 70, behin emakida onartutakoan, ebazpena argitaratu eta laguntza espresuki edo isilbidez onartu ondoren, agindu honetako 17.1 oinarrian ezarritako epean.

b) Gainerako % 30a, proiektua gauzatu izana eta haren gastu osoa justifikatu eta gero, agindu honetako 14. oinarrian ezarritakoari jarraituz.

2.– Edozein ordainketa egin baino lehen, entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatuko da, baita dirulaguntzen arloko itzulketa-prozeduretatik eratorritako zor guztiak ordaindu dituela ere.

17. oinarria.– Elkarte onuradunen betebeharrak.

Elkarte onuradunek oso-osorik beteko dituzte Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritako xedapenak.

Entitate onuradunek betebeharrak hauek dituzte, indarrean dagoen araudiak adierazitako betebeharrak gain:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Entitate onuradunek ez badiote berariaz uko egiten dirulaguntzari esleipen-ebazpena EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik 10 egun balioduneko epean, onartu egin dutela ulertuko da.

2.– Hirugarren interesdunaren datuei alta emateko Eusko Jaurlaritzaren inprimakia, edo, hala dagokionean, hirugarrenaren datuak aldatzeko eskabidea inprimakia betetzea, salbu eta aurretik Eusko Jaurlaritzan aurkeztu badira inprimakiok. Behar den inprimakia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

3.– Jasotako laguntza guztia diruz lagundutako proiektua gauzatzeko erabiltzea.

4.– Aldaketaren bat izan bada dirulaguntzak ematerakoan eskatu eta kontuan hartu den betekizunaren batean, horren berri idatziz ematea organo kudeatzaileari, aldaketa gertatu eta 5 egun balioduneko epean gehienez ere.

5.– Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat lortu bada beste edozein administrazio edo ente publiko nahiz pribaturen baten aldetik, horren berri ematea organo kudeatzaileari, hori gertatu eta 5 egun balioduneko epean gehienez ere.

6.– Diruz lagundutako proiektuari jarritako baldintzak eta eskakizunak bete direla eta proiektua gauzatu dela justifikatzea.

7.– Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea egiaztatzeko, ikuskatzeko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko prozeduretan, eta Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketan mende jartzea.

8.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epategiari ematea laguntzen zertarakoa kontrolatzeko eskatu duten informazio guztia.

9.– Jasotako funtsak zertan erabili diren frogatzen duten agiriak 5 urtez gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko.

10.– Publizitatean edo egiten diren dokumentuetan Osasun Sailaren babesari buruzko aipamen bat sartzea. Aipamen hori, Sailak gainbegiratu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburuan xedatutakoaren arabera txertatuko da. Eskuliburua hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/erakunde-ikurrak-eta-nortasuna/web01-s1ezaleh/eu/>

11.– Euskadi Aktiboa plataforman elkarte baliabide komunitario gisa ikusaraztea. Plataformarako sarbidea egoitza elektroniko honetan dago: <https://www.euskadi.eus/informazioa/euskadi-aktiboa-auzolan-osasuna-zabaltzen/web01-a2osabiz/eu/>

18. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Agindu honetan baimendutako kasuetatik aparte beste ekarpen batzuk ere izaten badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egingo da, agindu honetako oinarri erregulatzaileretan ezarritakoaren arabera.

Emandako dirulaguntza edo haren baldintzak aldatzea erabaki dezake dirulaguntza ematen duen organoak, ofizioz edo alderdi interesdunak eskatuta, 20/2023 Legearen 25.1 artikuluan jasotako betekizunak betetzen badira.

Dirulaguntzaren zenbateko osoa edo zati bat jaso badu entitate onuradunak eta aldaketaren ondorioz dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu behar bada, 20/2023 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

19. oinarria.– Diruz lagundutako jardueraren jarraipena.

Osasun Sailak egoki deritzen gainbegiratzeak, ikuskapenak eta egiaztapenak egingo ditu, xedapen honetan ezarritako arauak betetzen direla bermatzeko. Era berean, edonoiz eman ahal izango die erabilera publikoa laguntza hauen bidez finantzatutako programa eta jardueren edukari eta emaitzei.

20. oinarria.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Entitate interesdunek bitarteko elektronikoak erabiliz soilik eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte prozedura honen izapide guztiak.

2.– Ahalordeen erregistro elektronikoa buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ordezkarren-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

3.– Elkarrekin sinadura elektronikoa aitortuko sistemen bidez identifikatuko dira. Identifikazio elektronikoa egiteko onartutako baliabideak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa honetan: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

4.– Laguntzak izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak, ereduak, eskaera-inprimakiak eta izapidetze elektronikorako zuzeneko sarbidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak//0027511>

5.– Eskabidearen ondorengo izapideak eta izapideen jarraipena bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atala erabilita: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

21. oinarria.– Ez-betetzeak eta diru-itzulketak.

1.– Entitate onuradunak ez baditu betetzen agindu honen 17. oinarrian, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako betebeharrak, galdu egingo du emandako laguntza jasotzeko eskubidea.

2.– Osasuneko sailburuordeak hasi eta ebatziko du itzultzeko prozedura, ez-betetzeari buruzko espedientea ireki eta entitate interesdunari entzun ondoren. Espediente horretan, administrazio-ebazpen bidez adieraziko da dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola jasotako zenbatekoak, baita dagozkion berandutze-interesak ere, bat etorri Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legean itzulketari, horren kausei eta jarraitu beharreko prozedurari buruz ezarritakoarekin, 20/2023 Legearen 40. artikuluekin eta arlo horretan indarrean dagoen legeriarekin.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan adierazitako itzulketa-arrazoiez gain, honako hauek ere dirulaguntza jasotzeko eskubidea gal-tzeko kausa izango dira, eta jasotako dirulaguntza itzuli behar izatea ekarriko dute:

a) Entitate interesdunak dirulaguntzari uko egitea, aurretik dirulaguntzaren ordainketa jaso badu.

b) Agindu honetako 4. oinarrian jasotako baldintzak ez betetzea.

c) Justifikazioak ez hartzea eskabidean aurkeztutako proiektuaren aurrekontu osoa, eta bi aurrekontuen artean % 25etik gorako desbideratzea egotea.

4.– Agindu honetako 5. oinarrian xedatzen denaren arabera, halaber, jasotako laguntza itzuli egin beharko da baldin eta laguntzaren zenbatekoak diruz lagundutako proiektuaren kostua gainditzen badu, berak bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Kasu horretan, soberako kostua eta dagokion berandutze-interesa soilik itzuli beharko da.

5.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, laguntzaren parte bat itzuli beharko da, proportzionaltasun-printzipioaren arabera, eta, betiere, baldintzak guztiz bete ez arren nabarmen bete badira eta entitateak egiaztatzen badu bere konpromisoak betetzen irmo ahalegindu dela. Nolanahi ere, aldaketak ezin izango du inola ere eragin jarduerak lotura galtzea deialdiaren 1. oinarrian adierazitako xedearekin, ezta proiektuaren beraren xedea bete gabe geratzea ere.

Halakorik gertatuz gero, laguntza aldatzeko ebazpenean finkatutako zenbatekoaren soberakina itzuli beharko da. Ebazpen hori deialdiaren 11. oinarrian aipatzen diren eskabideak baloratzeko irizpideei jarraituz bideratuko da.

6.– Jada ordaindutako dirulaguntza baino zenbateko txikiagoko gastuak justifikatuz gero, dirulaguntza murriztu egingo da justifikatu gabeko zenbatekoa kenduta, eta, ondorioz, entitate onuradunek proportzionalki itzuliko dituzte jasotako dirulaguntzak.

7.– Itzultzen diren diru kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

II. ERANSKINA

GAIXOEN ETA HAIEN FAMILIEN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO LAGUNTZAREN
ESKABIDE ELEKTRONIKOA (2024)

* Nahitaezko eremuak

Instrukzio-organo honi zuzendua: OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Eskatzailea/Konektatutako pertsona

Honela dihardu:

Espedienteko pertsona edo entitate interesduna

*Identifikazio dokumentua	*Zenbakia	*Izena	*Lehen abizena	*Bigarren abizena	*Sexua

Honen ordezkarietan:

Pertsona edo entitate ordezkatuaren datuak

*Identifikazio dokumentua	*Zenbakia	*Izena	*Lehen abizena	*Bigarren abizena	*Sexua

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira:

Espedientea izapidetzen ari den bitartean, Administrazioak honi bidaliko dizkio jakinarazpenak:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako bidea *

Elektronikoa: Nire Karpetako jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Sartzeko, identifikazio-bitarteko elektronikoa bat behar da.

Kanal elektronikoa buruzko oharra: jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitza joko da Nire Karpetan eskuragarri jarri eta 10 egun natural igaro ondoren. Adierazitako epea bete ondoren, jakinarazpena atzera bota duzula ulertuko da, eta hala jasoko da espedientean. Izapidea gauzatzat joko da, eta administrazioak aurrera egingo du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak

Abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera, jakinarazpenen bat edo komunikazioen bat daukazunean Nire Karpetan.

Helbide elektronikoa*	Berretsi helbide elektronikoa	Telefono mugikorra

Komunikazio-hizkuntza *

Mezu elektronikoen eta abisu-mezuen bitartez bidaliko zaizkizun jakinarazpenak eta komunikazioak zuk adierazitako hizkuntzan egongo dira.

Euskara

Castellano

Datuak erabiltzeko baimena *

Komunikaziorako eta abisu-entzako nire datuak Eusko Jaurlaritzako sailekin eta organismoekin ditudan harremanetan oro har erabiltzea nahi dut.

Komunikazio eta abisu-entzako nire datuak espediente honen kudeaketarako soilik erabiltzea nahi dut.

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskubidean ageri diren datu pertsonalak «Osasun publikoaren eta adikzioen arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

Arduraduna: Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Helburua: Osasun publikoaren eta adikzioen arloko laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak:

- Bankuak, kutzak eta landa-kutzak
- Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa
- Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko; era berean, informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere badituzu.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehea duzu web-orri honetan:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/087600-cap2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra

(eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa

(https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

INPRIMAKIKO DATUAK

Entitate eskatzailearen datu fiskalak dauden lurraldea/probintzia

Lurraldea / Probintzia	
------------------------	--

Datu orokorrak

Entitatearen izena	
Proiektuaren izenburua	

Harremanetarako arduraduna

Izen-abizenak	Telefono-zenbakia	Helbide elektronikoa

Zein jardueratako eskatzen den laguntza

A. Proiektuaren justifikazioa, zer egoerari erantzun nahi zaion (deskribapena), zer faktoreren gainean eragin nahi den

--

B. Dirulaguntzaren xede den jarduera eginda zer helburu lortu nahi diren

--

C. Proiektuak zer garapen izatea aurreikusten den (edukiak, jardueren eremua, faseen deskribapena, lanen eta zereginen egutegia, giza baliabideak eta bitarteko materialak, etab.)

--

D. Proiektuaren ebaluazio aurreikusia: onuradunen ezaugarriak (adina, sexua, bizilekua, jatorria edo etnia), jarraipen- eta inpaktu-adierazleak, jardueraren onuradunen gogobetetzearen balorazioa

--

E. Proiektuan berdintasun-ikuspegia sartzea

E.1. -Gaixotasun-prozesuan sor daitezkeen genero-desberdinkeriei aurre egiteko estrategiak (adierazi nola txertatzen diren proiektuaren fase guztietan desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduera espezifikoak).

E.2. Gizarte-egoera ahulean dauden pertsonak edo taldeek proiektuari onura ateratzeko aukerak handitzeko estrategiak, aldagai hauek aintzat hartuta: adina (haurrak eta pertsona nagusiak), migratzaileak, gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak edo bestelako gizarte-kalteberatasuna pairatzen dutenak, bai, halaber, zerbitzu-zuzkidura apaleko guneetan bizi diren pertsonak ere (adierazi nola sustatzen den pertsona horien parte-hartzea).

E.3. Gaixoak edo haien senideak proiektua diseinatzeko, martxan jartzeko eta ebaluatzeko prozesuetan inplikatzeko estrategiak (adierazi nola parte hartzen duten gaixoei eta haien senideei)

E.4. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko estrategiak eta, bereziki, jarduerarekin lotutako argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean euskararen erabilera bermatzekoak (arreta lehentasunezko hizkuntzan, euskarazko jarduera eta argitalpenak, beste hizkuntza batzuetan hitz egiten dutenei laguntzeko mekanismoak...)

F. Beste arlo batzuetako elkarte edo entitate batzuekin lankidetzan aritzea elkarlaguntza eta boluntarioritza sustatzeko (gaixoen elkarteekin eskuarki edo proiektuan, arlo komunitarioko beste entitate batzuekin...)

PROIEKTUAREN AURREKONTU OSOAREN XEHAKAPENA

Zuzeneko gastuak

Kontzeptua	Deskribapena	Zenbatekoa eurotan
Langileak (nominak eta gizarte-segurantzako gastuak)		
Profesional independenteen zerbitzuak		
Ekipamenduak eta materialak		
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Zuzeneko gastuak, guztira		

Zeharkako gastuak

Kontzeptua	Deskribapena	Zenbatekoa eurotan
Alokairuak eta errentamenduak		
Dietak eta joan-etorriak		
Kudeaketa eta administrazioa		
Zeharkako gastuak, guztira		

Proiektuaren aurrekontua, guztira		
--	--	--

Proiektua finantzatzeko iturriak (egiaztatutako ekarpenak)

Kontzeptua	Deskribapena	Zenbatekoa eurotan
Entitatearen berarenak		

2024ko maiatzaren 28a, asteartea

Kontzeptua	Deskribapena	Zenbatekoa eurotan
Erabiltzaileen ekarpenak		
Beste erakunde batzuenak (zeintzuk)		
Beste diru-sarrera batzuk (zehaztu)		
Finantzaketa-iturriak, guztira		

Proiekturako eskatutako beste laguntza batzuk (ebazteko daudenak)

Erakundea	Eskatutako zenbatekoa
Guztira	

DEIALDI HONETAN ESKATUTAKO ZENBATEKOA

Eskatutako zenbatekoa	Zenbatekoa
Zuzeneko gastuak	
Zeharkako gastuak	
Eskatutakoa, guztira	

Eskatutako zuzeneko gastuek aurrekontuan jasotako zuzeneko gastuak baino txikiagoak edo berdinak izan behar dute.

Zeharkako kostuak, betiere dirulaguntzaren xede den proiektuari argi eta garbi egozteko modukoak badira formulazioa, jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, ezin dira eskatutako laguntzaren % 15 baino gehiago izan.

Eskatutako zenbatekoaren eta beste finantzaketa-iturri batzuetatik jasotako zenbatekoaren baturak ezingo du gainditu proiektuaren aurrekontu osoa.

ENTITATEAREN DATUAK

Izena, erregistroan edo erroldan agertzen den bezala	Erregistro-data	Erregistro-zenbakia

Estatutuen arabera, hau da entitatearen helburua (hitzez hitz kopiatu):

Zerbitzuak ematen daraman denbora

5 urte baino gutxiago 5 eta 10 urte bitartean 10 urte baino gehiago Besteren bat

Estaldura-esparru geografikoa

Araba
Bizkaia
Gipuzkoa
Espainia (gainerako autonomia-erkidegoak)
Europa
Nazioartea

Lan eta orientazioko eremua

Paziente-elkarteak

Osakidetzako katalogoko prestazioak eta beste prestazio batzuk ematen dituzten elkarteak
Zerbitzu osagarriak dituzten elkarteak (informazioa, autolaguntzak, etab.)

Arlo sanitarioko profesionalen elkarteak eta elkargoak

Elkargo profesionala
 Profesionalen elkarteak
 Zientzia-elkarteak
 Ikerketa-zentroak (I+G)

Arlo sanitarioko profesionalen elkarteak eta elkargoak

Gizarte-arloa
 Hezkuntza-arloa
 Lan-arloa
 Beste batzuk

Zure entitateak osasunaren arloan bakarrik lan egiten al du?

Bai Ez

Zure entitatea onura publikokotzat aitortuta al dago?

Bai Ez

Ematen dituen zerbitzuak:

Zerbitzu sanitarioak
 Gizarte-zerbitzuak
 Prestakuntza
 Informazioa eta orientazioa
 Prebentzioa / sentsibilizazioa
 Ikerketa eta argitalpenak
 Beste batzuk

Elkartearen jarduera nagusiki zein kolektibori zuzenduta dago? Hautatutako aukeretan, zehaztu zenbat onuradun izan dituzten elkartearen jarduerak azken urtean.

Kolektiboa	Emakumeak	Gizonak
Gaixoak		
Profesionalak		
Senideak eta/edo zaintzaile ez-profesionalak		
Biztanleria osoa		
Beste kolektibo espezifiko batzuk		
Guztira		

Elkartearen jarduera batez ere zein adin-talderi zuzentzen zaion

65 urte edo gehiago	Emakumeak	Gizonak
50 eta 64 urte bitartean	Emakumeak	Gizonak
35 eta 49 urte bitartean	Emakumeak	Gizonak
18 eta 34 urte bitartean	Emakumeak	Gizonak
18 urte baino gutxiago	Emakumeak	Gizonak

Bazkide kopurua

	Emakumeak	Gizonak
Pazienteak		
Profesionalak		
Senideak		
Beste batzuk		
Guztira		

Kolaboratzaile kopurua

	Emakumeak	Orduak (hileko batezbestekoa)	Gizonak	Orduak (hileko batezbestekoa)
Langileak				
Profesional laguntzaileak				
Boluntarioak				
Guztira				

Elkartearen urteko aurrekontua (azken ekitaldia)

Deskribapena	Aurrekontua
Aurrekontua, guztira	

ZUZENDARITZA-BATZORDEKO KIDEAK

Entitatearen kide anitzeko gobernu-organoak/zuzendaritza-batzordeak —eskabidearen datan indarrean denak eta dagokion erroldan edo erregistroan erregistratuta dagoenak— kide hauek ditu (hitzez hitz kopia, eta izenak eta karguak adierazi. Entitatearen estatutuek aurreikusten ez badute kide anitzeko gobernu-organo bat egotea, zehaztu batzordeburu, idazkari eta diruzain izango diren pertsonen izenak eta karguak):

Batzordeburua:

Izena	Kargua

Emakumeak, guztira Gizonak, guztira

ADIERAZPENAK

Eskatu al duzu xede eta helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio publikotatik edo entitate publiko edo pribatutatik? (puntu honetako datuak memoria-agirian xehatu behar dira)*

Bai Ez

Onartu al zaizu xede eta helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio publikotatik edo entitate publiko edo pribatutatik? (puntu honetako datuak memoria-agirian xehatu behar dira)*

Bai Ez

Jaso al duzu xede eta helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio publiko edo entitate publiko edo pribatutatik?*

Bai Ez

Entitate eskatzailea legez dago osatuta eta erregistroan izena emanda (erregistroko izena eta zenbakia eman):

Erregistro-izena: *

Erregistro-zenbakia: *

Entitate eskatzailea ez dago zigor- eta administrazio-arloko ebazpen irmo baten bidez zigortuta dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, indarreko legeriaren arabera; ez dago, halaber, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluan 5. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debeku-kausaren baten eraginpean, ezta horretarako ezgaitzen duen bestelako legeria aplikagarrian aurreikusitako eraginpean ere.

Entitate eskatzailea ez dago epai irmo baten bidez zigortuta dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin.

Entitate eskatzaileak egunean ditu legez ordaindu behar dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehazturik dagoen bezala.

Entitate eskatzaileak egunean ditu dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharrak.

Entitate eskatzailea ez dago deklaratu borondatezko konkurtsoan, ezta kaudimenik gabekotzat edo konkurtsoan ere (non eta konkurtsoan ez duten hitzarmen bat adostu); ez dago, halaber, esku-hartze judizialaren mende, ezta konkurtsoa sailkatzeko epai baten bidez desgaitua ere.

Entitate eskatzaileak ez du eragin administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa, errudun deklaratu izan delako.

Administrazioarekin edo entitate eskatzailearen legezko ordezkaritza dutenak ez daude abenduaren 26ko 52/1984 Legean eta ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean, eta ez dute ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargurik.

Entitate eskatzaileak betetzen du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko araudia, eta badu berdintasun-plan bat eta ezarrita ditu sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak, 50 langiletik gorako entitatea izateagatik.

Entitate eskatzaileak ez du administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

Betetzen du desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar diren lanpostuen kuota, edo, kuota betetzen ez badu, egiaztatu du bestelako neurri batzuk hartu dituela hori betetzeko.

Entitate eskatzaileak betetzen ditu laguntza hauen onuradun izateko indarreko araudian ezartzen diren eskakizunak.

Entitate eskatzaileak konpromisoa hartzen du proiektuak gainfinantzaketarik ez izateko, beste laguntza batzuk ere jasotzea onartzen bada.

Egiazkoak dira eskabidean eta erantsitako agiritan emandako datuak.

BAIMENAK

Zure baimena behar da instrukzio-organoak datu hauek egiazta ditzan. Hauta itzazu baimena emateko:*

Gizarte Segurantzaren ordainketa egunean izatea (GSDN-Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia)

Zerga-betebeharrak egunean izatea (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)

Baimenik ematen ez baduzu, prozeduran eskatutako agiri guztiak aurkeztu beharko dituzu.

AURKEZTUTAKO AGIRIAK

Agiri mota	Izena
Memoria (hautazkoa)	
Borondatezko legezko ordezkaritza	
Hirugarrenaren altaren agiria	

III. ERANSKINA

GAIXOEN ETA HAIEN FAMILIEN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO PROIEKTUAREN
JUSTIFIKAZIO-MEMORIA ETA MEMORIA EKONOMIKOA (2024)

* Nahitaezko eremuak

0 - IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Elkartearen izena*	
Proiektuaren izenburua*	
Espediente-zenbakia*	

1- INFORMAZIO OROKORRA

1.1 Proiektuaren iraupena

Aurreikusitako hasiera-data	Benetako hasiera-data

Aurreko bi datak ezberdinak badira, azaldu arrazoia

Amaiera-data	Gauzatze-aldi osoa

1.2 Kokapen zehatza (proiektua EAEko zer gunera, hiri, auzo edo udalerritan egin den)

1.3 Diruz lagundutako proiektua diseinatzeko, egikaritzeko eta ebaluatzeko prozesuan parte hartu duten kontratadun langileek eta boluntarioek betetako funtzioak (egindako funtzioak, dedikazio-denbora eta kontratu mota)

2 - JARRAIPEN TEKNIKOA

2.1 Proiektuaren garapeneren deskribapen laburra (egindako jarduerak, onuradunen kopurua sexuaren eta adinaren arabera, egindako talde edo tailer kopurua, saioen ordu kopurua edo iraupena).

2.1.1 Aurreikusitakoarekiko aldeak. Proiektua garatzeko orduan izandako laguntzak eta zailtasunak.

2.2. Proiektuaren helburua lortzea (adierazi zertan eragin duen proiektuak aurreikusitako helburua lortzeko).

2.3. Emaidzak lortzea (deskribatu lortutako emaitza, hori neurtzeko erabilitako adierazleak, eta zehaztu zenbateraino lortu den)

Emaidza	
Adierazleak	
Zenbateraino bete den Oharrak	

2.4. Egindako jardueren zerrenda

Aurreikusitako jarduera	Amaitua	Ez da egin

2.5. Jardueren kronograma eguneratzea (zerrendatu 2.4 apartatuan azaldutako jarduerak, eta zehaztu jarduera bakoitza egin den hilabeteak)

Jarduera	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe

3 - BALORAZIOA

3.1. Proiektuaren balorazio orokorra egitea (proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak baloratu: egindako jardueren bidez emaitzak eta helburuak lortu diren, aurrekontua betearazi den, esku-hartzearen hartzaileek parte hartu duten, etorkizuneko esku-hartzeetarako zer hobetu behar den eta abar)

3.2. Proiektuan berdintasun-ikuspegia sartzea

3.1.1. Gaixotasun-prozesuan sor daitezkeen genero-desberdinkeriei aurre egiteko estrategiak (adierazi nola txertatu diren proiektuaren fase guztietan desberdinkeriak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jardura espezifikoak)

3.1.2. Gizarte-egoera ahulean dauden pertsonak edo taldeek proiektuari onura ateratzeko aukerak handitzeko estrategiak, aldagai hauek aintzat hartuta: adina (haurrak eta pertsona nagusiak), migratzaileak, gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak edo bestelako gizarte-kalteberatasuna pairatzen dutenak, bai, halaber, zerbitzu-zuzkidura apaleko guneetan bizi diren pertsonak ere (adierazi nola sustatzen den pertsona horien parte-hartzea)

3.1.3. Gaixoak edo haien senideak proiektua diseinatzeko, martxan jartzeko eta ebaluatzeko prozesuetan inplikatzekeo estrategiak (adierazi nola parte hartu duten proiektuaren fase guztietan gaixoeke eta haien senideek)

3.1.4. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko estrategiak, eta, bereziki, jarduerarekin lotutako argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean euskararen erabilera bermatzekoak (arreta lehentasunezko hizkuntzan, euskarazko jardura eta argitalpenak, beste hizkuntza batzuetan hitz egiten dutenei laguntzeko mekanismoak...)

3.3 Beste erakunde publiko batzuekin, elkarteekin, federazioekin edo arlo komunitarioko edo boluntariotzako elkarteekin koordinatzea (adierazi nola koordinatu den proiektua beste entitate pribatu edo publikoekin, eta zer lankidetzak egin daitezkeen etorkizunean)

--

4 - PROIEKTUKO GASTUEN MEMORIA XEHATUA

Gastuen memoriak bat etorri behar du **aurkeztutako proiektuaren hasierako aurrekontuarekin**:

- 1) Hasierako aurrekontuaren zenbateko osoa
- 2) Hasierako aurrekontuaren **kontzeptu berberak**
- 3) Hasierako aurrekontuaren kontzeptuetan **proportzio berbera**

Laguntza honi egotzitako zenbateko osoak emandako dirulaguntzaren parekoa izan behar du.

Zuzeneko gastuak*

Kontzeptua	Zein	Egindako proiektuaren guztizko gastuak	Laguntza honi egotzitako zenbatekoa
Langileak (nominak eta gizarte-segurantzako gastuak)			
Profesional independenteen zerbitzuak			
Ekipamenduak eta materialak			
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak			
Bestelako gastuak (zehaztu)			
Guztira			

Zeharkako gastuak*

Kontzeptua	Zein	Egindako proiektuaren guztizko gastuak	Laguntza honi egotzitako zenbatekoa
Alokairuak eta errentamenduak			
Dietak eta joan-etorriak			
Kudeaketa eta administrazioa			
Guztira			

Egotzitako zeharkako kostuen atala, gehienez, jasotako laguntzaren % 15 izango da.

Gastuak, guztira (zuzeneko gastuak + zeharkako gastuak)

Proiektuaren gastuak, guztira	Laguntza honi egotzitako zenbatekoa, guztira

Proiektuaren beste finantzaketa-iturri batzuk*

- Adierazten dut ez dugula beste finantzaketa-iturririk jaso.
- Adierazten dut jaso ditugula beste finantzaketa-iturri batzuk, jarraian zehazten den bezala:

Zein	Zehaztu erakundeak	Zehaztu bestelako diru-sarrerak	Zenbatekoa
Entitatearenak berarenak			
Erabiltzaileen ekarpenak			

Zein	Zehaztu erakundeak	Zehaztu bestelako diru-sarrerak	Zenbatekoa
Beste erakunde batzuk (zeintzuk)			
Beste diru-sarrera batzuk (zehaztu)			
Guztira			

Adierazi proiektuaren gastu guztietara iritsi arteko finantzaketa-iturri guztiak. Deialdi honetan emandako zenbatekoaren eta beste finantzaketa-iturri batzuetatik jasotako zenbatekoaren baturak ezingo du gainditu egindako guztizko gastua.

5 - EGINDAKO GASTUA EGIAZTATZEKO AGIRIEN ZERRENDA

Gastuen agiriekin bat etorri behar dute **aurkeztutako proiektuaren hasierako aurrekontuarekin**:

- 1) Hasierako aurrekontuaren zenbateko osoa
- 2) Hasierako aurrekontuaren **kontzeptu berberak**
- 3) Hasierako aurrekontuaren kontzeptuetan **proporzio berbera**

Laguntza honi egotzitako zenbateko osoak emandako dirulaguntzaren parekoa izan behar du.

OHARRA: Eskatutako laguntzaren zenbateko osoa eratzen duten faktura guztien kopiak erantsi behar dira.

Taula hau erreferentziako dokumentu gisa erantsi da, eta beste formatu batean aurkez daiteke, betiere informazio baliokidea badu.

Zuzeneko gastuak

Zk.	Agiri mota	Kontzeptua	Jaulkitzailea	Data	Egindako proiektuaren guztizko gastuak	Laguntza honi egotzitako zenbatekoa
Guztira						

Zeharkako gastuak

Zk.	Agiri mota	Kontzeptua	Jaulkitzailea	Data	Egindako proiektuaren guztizko gastuak	Laguntza honi egotzitako zenbatekoa
Guztira						

Gastuak, guztira (zuzeneko gastuak + zeharkako gastuak)

Proiektuaren gastuak, guztira	Laguntza honi egotzitako zenbatekoa, guztira

AURKEZTUTAKO AGIRIAK

Agiri mota	Izena
Egiaztagiria	
Izaera publikoko agiria	
Bertaratutakoen zerrenda	
Fakturak taldekatuta	